

PROWEIN DÜSSELDORF 2024

BERTARATZEKO DEIALDIA

- **Data:** 2024ko martxoak 10-12
- **Tokia:** Düsseldorf-eko azoka esparrua, Alemania
- **Maiztasuna:** urtero
- **Sektorea:** Mahastizaintza eta Ardogintza industriako profesionalak
- **Izena emateko epea:** 2023ko uztailaren 20
- **Azokaren webgunea:** www.prowein.com

Informazio gehiago:

María Fernández de Romarategui

945 14 18 00

internacional@camaradealava.com

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **PROWEIN 2024** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du HAZIren bitartez. Azoka, Düsseldorf-en (Alemania) ospatuko da 2024ko martxoaren 10etik 12ra.

AZOKAREN IZAERA

2022an, Alemania izan zen ardoen munduko lehenengo herrialde inportatzailea bolumenari dagokionez, eta hirugarrena balioari dagokionez, Ameriketako Estatu Batuen eta Erresuma Batuaren atzetik. Hiru herrialde hornitzaile nagusiek (Italia, Frantzia eta Espainia) banatzen dute inportazioen merkatuko kuotaren %81etik gora, balioari dagokionez: Italia, %39,2; Frantzia, %29, eta Espainia, %13,2.

Alemania izan zen 2022an Espainiako ardoen esportazioen helmuga nagusia balioari dagokionez (397 milioi euro). Bolumenari dagokionez, berriz, 2022an, 3,99 milioi hl esportatu ziren guztira, batezbesteko balioa 95,99 €/hl izanik. Euskadiren kasuan, Alemania esportazioen laugarren postuan dago baliori dagokionez eta hirugarren postuan bolumenari dagokionez, 35.368 hektolitroko bolumenarekin eta hektolitroko 535 €-ko balioarekin. Horiek horrela, 2022an behatutako joerek adierazten dute Alemaniak izaten jarraitzen duela ardoen funtsezko merkatua.

ProWein Düsseldorf Europako garrantzitsu eta esanguratsuentzat finkatu da, eta erakusketarien artean, ardoen eta beste edari alkoholikoen batzuen munduko ekoizle nagusiak ditu. 2023an, azokak bere data tradizionalak berreskuratu ditu, eta bisitari kopuruak nabarmen egin du gora, aurreko edizioekin alderatuta, nahiz eta pandemiaren aurreko mailara iritsi ez.

Azoka publiko profesionalarentzat da soilik, eta bertara joaten diren bisitariak banaketa-kanaletako erosle adituak dira (handizkariak, hotelen industria, cateringa, txikizkari espezializatuak, inportatzaileak, banaketa-kate handiak, etab.)

AZOKAREN IZAERA

PROWEIN AZOKAREN DATUAK

**Erakusketa
eremua:**

**68.000 m²
baino
gehiago**

Ordutegia:

**09.00etatik
18.00ak arte**

**Erakusleak
2023an:**

**6.000
enpresa 62
herrialdekoak**

**Bisitariak
2023an:**

**49.000
profesional
141
herrialdekoak**

EUSKADI BASQUE COUNTRY STANDα

Eusko Jaurlaritzak 290 m²-ko espazioa izango du **PROWEIN 2024** azokan stand indibiduala edo stand partekatua izanik parte hartu nahi duten Euskadiko mahastizaintza- eta ardogintza industriako enpresentzat. Standa Espainiako ardoak izango dituen azoka-pabiloian egongo da.

Euskadiren ordezkariak edukiera mugatua dauka. Eskuragarri dagoen espazioa baino enpresa interesdun gehiago izanez gero, **izena emateko ordena zorrotzari jarraituz egingo da hautaketa.**

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Egoitza **Euskadin** duten eta Eusko Jaurlaritzaren **Elikagaien Industrien Erregistroan** inskribatuta dauden **enpresa ekoizleak** baino ezingo dute parte hartu ekitaldi honetan.

AZOKAREN AURRETIK

- Enpresak ordezkarri bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du eta kuota ordainduko du. Euskadiren pabiloian egongo dela jakinarazi ondoren, ezin izango da baja eman. Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.
- Enpresek nahitaez agertu beharko dute ekitaldia hasiko den egunaren bezperan, adierazitako orduan, merkantziajasotzeko eta beren standen dekorazioa azkentzeko, ekitaldia hasi baino lehen, nahikoa aurrerapenarekin.
- Enpresa azokaren ordutegi ofizialean standetik joango balitz arrazoitutako aparteko arrazoirik gabe, azokaren hurrengo edizioan galdu egingo lituzke lehentasunezko eskubideak (izena emateko hurrenkera, etab...). Haren eskariari izena emateko eta ordainketa egiteko datetan egin diren gainerako eskariak aintzat hartu ostean baino ez litzaioke erantzungo.
- Halaber, enpresa batek edo hainbatek standa uztearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak, bertaratze taldekatuaren antolatzailea izanik, azokaren antolakuntzaren aldetik zehapen ekonomikoren bat jasoko balu, zehapen hori berehala jasanaraziko litzaioke arau haustea eragin duen enpresari edo enpresei.

AZOKAN ZEHAR

- Erakusten diren produktuek soilik Euskadin ekoizitakoak izan beharko dute. Inola ere ezin izango da ez aipatu, ez aurkeztu, beste autonomia erkidego batzuetako produkturik.
- Bere standean egon azokako egun guztietan eta irekiera-ordutegi osoan.

AZOKAREN ONDOREN

- Ebaluazio-inkesta egin; antolakuntzaren jarraibideen arabera bete eta entregatu beharko dute.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

PARTE HARTZEKO EREDUA

Eusko Jaurlaritzaren standak JD duten kalitatezko ardoak, JD duen txakolina eta/edo beste edari alkoholodun batzuk ekoizten dituzten Euskadiko Elikagai Industriako enpresak hartuko ditu.

Alemaniaiko merkatuak gure esportazioetarako merkatu nagusietako bat denez, Eusko Jaurlaritzak jarduerari babes handia ematea erabaki du. Bi partaidetza-mota proposatu ditu:



- **Stand INDIBIDUALA** eredua
- **Stand PARTEKATUA** eredua (gune komuna, bereizgailurik gabe enpresen artean)

PARTE HARTZEKO KOSTUA

ProWein 2024 azokan parte hartzeak kostu hau izango du:

- **Stand individuala:**

2.800 € + BEZ %21

- **Stand partekatua:**

1.400 € + BEZ %21

GARRANTZITSUA:

Espazioa mugatua denez, **bermatutako stand individualen kopurua mugatua** izango da. Stand individualen adjudikazioa gainditu ondoren, modalitate hori espazioa erabilgarri egotearen arabera izango da, izen-ematea dataren barruan eta forma egokian egiten duten enpresa guztien presentzia bermatu ondoren.

Stand individualak **izen-ematea osatu dutenen ordena zorrotzari jarraituz** adjudikatuko dira. Ezinbestekoa izango da izen-emate formularioa betetzea eta ordainketaren frogagiria, zure enpresak zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

IZENA EMATEKO EPEA: 2023KO UZTAILAREN 20

Leku kopurua mugatua denez, gomendatzen dugu lehenbailehen izena emateko formularioa betetzea eta ordainketaren frogagiria, zure enpresak zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten agiriak bidaltzea Maria Fdez. de Romarategui: internacional@camaradealava.com

Enpresa parte hartzaileen hautaketa izena emateko dokumentuak jasotzen diren hurrenkeraren arabera egingo da eta lehentasuna emango zaie **Euskadiko Elikadura Sistemako Enpresa Jardunbide Egokien Kodeari** atxikita dauden enpresei.

Eskabidea osorik egon dadin eta kontuan har dadin, honako hauek bete beharko da:

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE

Formularioan eskatzen den informaziotik datuak zehazki transkribatuko dira, azokaren katalogo ofizialerako eta prestatzen diren gainerako elementu promozionaletarako.

IZENA EMATEAK

KUOTAREN ORDAINAGIRIA

Kontu zenbakia:

ES49 3035-0179-61-1791069900

Laboral Kutxa HAZIren izenean.

BIC de Laboral Kutxa: CLPEES2MXXX

Kontzeptua: "Enpresaren izena + PROWEIN 2024".

- HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion zenbatekoaren faktura igorriko dizue, izena emateko epea amaitu eta parte hartzea baieztatu eta gero.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

GARRANTZITSUA

Izen-ematea formalki egintzat jotzeko **IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE** eta **ORDAINAGIRIA IGORRI** beharko da. Ondorio guztietarako, izen-ematea ordaindu den eguna hartuko da izen-emateko datatzat.

Eskatutako izena emateko formularioa betetzeak **EZ DAKAR** enpresak Euskadiren pabiloian parte hartzea; izen-ematea onartu dela jakinaraziko da.

ENPRESAK FAKTURA JASO, HAU DA, EUSKADIREN STANDEAN SARTZEAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN PARTE-HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresa erakusketariak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, HAZIren bitartez, zerbitzu hauek eskainiko ditu:

1 Espazioaren kontratazioa

Sustapen-espazioa izanez parte hartuko da. Espazio horrek gutxi gorabehera 9m²-ko stand indibidual pertsonalizatuak izango ditu enpresa erakusketari bakoitzarentzat, bai eta stand partekatuen gune bat ere.

2 Standaren dekorazioa

Standean egongo diren oinarrizko dekorazioa eta altzariak berdinak izango dira Euskadiko erakustokiko erakusle guztientzat, eta elementu hauek izango dituzte:

- **Stand INDIBIDUALA:** mahai bat eta 4 aulki, erakusmahaia, enpresa erakusketariaren errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia hozkailuarekin; azken hori beste enpresa batekin partekatu daiteke. Harraska erabilera komunitarioko eremu batean egongo da.
- **Stand PARTEKATUA:** erakusmahaia eta aulkia, enpresa bakoitzaren errotulua, bileren mahaia, biltegia hozkailuarekin, erabilera komunitarioko harraska, eta konexio elektrikoa.

Oharra: Harraskak ez dira sartzen stand indibidualetan. Gune komun batean jarriko dira.

Standetako oinarrizko altzarien, elementu elektrikoaren edo premia elektrikoaren edozein aldaketa, horiek gehitzea edo aldatzea badakar, erakusketari bakoitzak kontratatuko du zuzenean, eta dekoratzaileak zuzenean fakturatuko duen kostu erantsiarekin ordainduko du.

3 Standa mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura...)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketa-, elektrizitate eta ur-zerbitzuez, besteak beste, bai eta, oro har, standaren mantentze egokiaz ere. Hala ere, enpresa bakoitza izango da bere standaren garbitasun-baldintza egokietan izatearen erantzulea.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

4 Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren taldeko bidalketa antolatuko du garraiolariak adierazitako puntu komun batetik standera bertara entregatu arte.

Merkantzia bidaltzearen kostua garraiolariak fakturatuko du eta enpresa erakusketariak ordaindu beharko du osorik. Dagokion garaian, enpresa garraiolari adjudikaziodunaren datuak helaraziko dira. Eusko Jaurlaritza ez da taldeko bidalketatik kanpo bidalitako merkantzien harreraren eta segurtasunaren arduradun izango.

Enpresek bertan egon beharko dute merkantzia hartzeko garaian, adieraziko zaien orduan, eta bertan egon beharko dute, halaber, standen dekorazioa azkentzeko, ekitaldia hasi aurretik, nahikoa aurrerapenarekin. Adierazitako orduan merkantzia jasotzera joaten ez diren enpresei zehapena jarri ahal izango zaie.

5 Kopa eta listu ontzien zerbitzua

Eusko Jaurlaritzak kopen, garbiketaren eta listu-ontzien kontratazioa koordinatuko du. Zerbitzu hori %100 finantzatuko da kopen eta listu-ontzien lehenengo erretilurako.

Enpresa erakusketariak elementu gehiago kontratatu nahi baditu, eskaria zuzenean kudeatu beharko du zerbitzuaren hornitzailearekin, aldez aurretik antolakuntzari horren berri eman ondoren, azokan eskariaren harrera koordinatu ahal izateko.

6 Azokaren katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu azokan parte hartuko duten enpresa erakusketari guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean inskribatuta ager daitezen. Katalogo horretan agertzen dira erregistratuta ekitaldiaren erakusketari guztiak (izena emateko formularioan jasotako datuak agertuko dira).